

Ze barri?

1999
APIRILA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

30 zkia.

Urlatik Landetara

Erreportaia: Atzegi, adimen
urrikoen babesleku

Elkarrizketa: Neurosia taldea

Aitzorrotz Eguna; tradizioa
berreskuratzen

**MAIDER HERZE:
BIZITZEKO BESTE MODU
BAT IKASTEN
HONDURASEN**





Esko Sport

*Kirola eta sport
moda Leintz
bailaran.*


Tel. 943 715296



ZUBIA[®]
S.L.

Argitalarpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora



kutxa

*fundazioa
fundación*

BEIRALAN



- ✦ Komunerako altzari eta manparak
- ✦ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ✦ Beirate artistikoak
- ✦ Salarako mahaiaik

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☐ 943 79 81 78
ARETXABAETA

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

ALDATZ Taberna

Tfnoa.: 943 714171

Musika ona entzun dezazun

**Cuenta Joven
de Caja Laboral
El servicio
más completo.**

**Euskadiko Kutxaren
Kontu Gaztea.
Zerbitzuetan
osatuen.**



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



LENIZ
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943- 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**



ALDI
JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

COMPOSTELA


taberna

Bereztasuna:
Pulpoa gallego erara.
San Pedro,12

VILLAR
ileapaindegia

Tel. 71 50 42

**HEMEN ZURE KOLORETAKO
PUBLIZITATEA**



GOXOTXIKI
GOZOTEGIA

Hidalga, 3 • Tf. 943 715436
ESKORIATZA

Eskoriatzarrak munduen

Askok pentsauko daue Eskoitzaz atzo goixeko kontua dala, ero eurak jaixo zien ingurutik aurrera asmau zala izen honeatik ezauketan doun herrixa. Hemen, eurak ezien ezuala inor mobiruten, hemen eztauela ezebez etab. Eta barrez, gaurko egunien bizi garen eskoitzar danok sortu gitzenerako, gure herrixen gauza gehixenak inbentautu euzen. Kontua da erozein historiadore eta antzekuakin berba eitten bozu, danak esateutsuela inportantia-uak ziela guria moruko herrixak oin bostehun urte gaur diena baino. Hori kontutan hartuta datun bat ero beste baino ez: Atxorrotx inguruen bere egunien topau zien errestuakatik atara ei leike oin lau ero bost mila urte baeuela zelabaitteko bizirik inguru hontan. Hasi zateze hortik kontuak ataraten zenbaterainoko inportantzia dauken Atxorrotxek, urteroko zelebrazino folklorikotik kanpo.

Baina benetan historixa danapaino gehixau, errestu ta gainerakuen gainetik, herri baten historixia eta bizimorua momentu baktokien bizi dien herrittarrak eitten daue. Eta bai esan geike Eskoitzak emuinttuela seme-alaba asko mundura. Joan Bautista de Agiriano, Martin de Aldai, Felix Aranburuzabala "Txikito de Eskoriatza" herrittarren batzuk ondio goguen eukiko dauien

"Felix pelotari" da hau, zelan ez ... Jose Arana, Julian Barandiaran, bere egunien historixan izen dan Enpedadore poderosuenen mediku eta herriko plazia dedikautu dutsoun Fernando de Eskoriatza, Jose Garro; Filipinetako Gobernadore eta Kapitan Jeneral izetera ailegau zien eta aurreko alien eskeintten zan Ganuza etxiai oso lotuta euzen Francisco eta Iñigo de Gaztainadi,



Felipe de Goene-txea, dotazino bat baino gehixaukin ospittala sortu euen Joan Mondragon Askarretazabal, Don Eduardo Gorosari etab. ek lagundu daue Eskoitzaz eitten Iparragirrek bere bersuen oso ondo esaten euen ".....eman ta zabal zazu munduan frutua....."

Baina eztaukou hain urrin fan biherrik, gurizengo bagau hori ta urrinau fan hal izengo gitzakezelako, hor daukou Japonen Justo Segura, bere egunien Donostiako urrezko

tanborra konsegiro euen, Donostia eta Marugamen arteko anaittasuna bultzatu euelako, baina seguru askoherrixen erdixak ezauketan eztaueua, baita Txomin Armandariz, Benezuelako bere bazter hartatik hainbeste urte eta gero bere bokazinua dan abaretza ejerziruten, Dorletako Ama Birjinia himno bat ataratsena. Ero guk guria moruen konsideretan doun Naroa Enekotegi, hontaz dakixien esanetan musika munduen etorkizun haundixa daukena.

Horreatik esan geike gaurko alien aittatuteutsuegun Mainer Herze, Larraitx Uribesalgo ero Marisabel Goikoleak moruko beste batzuk einttuen lanak Ameriketako herrixai lagunketan, ezala kapritxo esnob bat, gosia pasau eztauien kaleko ume batzuen kapritxua Alkanze sakanauko zerbait baino. Lhen be esan dou momentuen momentu-kuak, enpresaixo, mediku, Andalu-zian torerua izetia dan besteko pelotarixak, ero epoka diferentietan, baktokta bere sasoi baina sekuentzia historiko bateko funtzino desbardinak beteten fan dien konkistadoriak, misionero-abariak ero azkenaldi hontan profesional solidariak emuinttu Eskoitzak Gutxi pentsetan ete jatsue, akaso?

D.M.III.na.



ZE BARRI?

Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA
 Erredakzio kontseilua: Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez, Monika Belastegi.
 Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.
 Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
 Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99 ISSN: 1139-9856
 "ZE BARRI?" aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



Eskoriatzako Udalak diruz lagundutako aldizkaria
 Euskara Batzordea



GATZAGA

Eskoriatzan ere Aberri Egun bateratua ospatu zen

Euskal Herria osoko udalerrietan egin zen bezala, Eskoriatzan ere abertzale guztiek bateginik ospatu zuten Aberri eguna pasa den apirilaren 4an.

Eguerdian Ikurriñari omenaldia egin zitzaion. Manu Villar, alkateak, eta Edorta Zubuzarreta Herri Batasunako zinegotziak altxatu zuten berau, eta bien bitartean, dantzariak aureskua egin zuten.

Ikurriñari egindako omenaldiaren ostean, "Nazio bat gara" manifes-

tua irakurri zen. Manifestu honetan, Euskal Herriari nortasun nazionala ukatzen saiatzen diren Estatu Espainiar eta Frantsesean kokatuta egon arren, juridiko-administatiboki bitan banatuta hain zuzen ere, nazio bati dagozkion esku-bide guztiak izan behar ditu-ela aldarrikatzen zen eta baita euskaldunok demokratikoki eta libreki Euskal Herriaren eraikuntza nazionala erabakitzeko eskubidea dugula ere. Ondoren, manifestu honen aldeko sinadurak batu ziren kon-

tejeupean.



Ikurriñaren omenaldiarekin hasi zen Aberri Eguna.



Bazkarian 35 lagun inguru bildu ziren. Zenbaki polita oporrak kontuan izanez gero.

Goizaldeko ekitaldien ostean, bazkari herrikoa ere izan zen. Bazkarira hogeita hamabosten bat lagun hurbildu ziren.

Honekin guztiarekin, eta opor egunak zirela kontuan hartuta, Eskoriatzan bertan geratu ziren herritarren partehartzea nahiko handia izan zela esan behar da.

Eskoriatzarrok "Bakea eraikitzen"

BAKEA ERAIKITZEN, *Euskal Herriak du hitza* lemapean bi mobilizazio garrantzitsu izan ditugu hil honetan: Apirilaren 10ean, larunbata, Bilbon egin zen manifestazio jendetsua bata eta apirilaren 12an, astelehena, **ordubeteko lan uzte orokorra** bestea.

Biei erantzun ona eman genien Eskoriatzarrok. Bilboko manifestaldirako autobusa bete zen eta beste batzuk kotxez ere hurbildu ziren. Lan uzteari eman zitzaion erantzuna

ere oso ona izan zen, orohar Eskoriatzako komertzio, lantegi, zerbitzu eta administrazio publikoak parte hartu zuten deialdian.

Honek guztiak gauza bakarra esan nahi du, euskaldunok bakebidean gogotsu segitzeko borondatea

badugula eta borondate horri esker bidean jartzen dizkiguten traba guztiei aurre egingo diegula.



Jende ugari lotu zitzaion apirilaren 10ean ordubeteko lanusteari argazkian ikus daitekeen bezala.

Mendi Elkartearekin txotx Larreta sagardotegian

Pasa den domekan datorren urtean berriz, apuntatzeko moduko mendi-irteera egin genuen Eskoriaztzako Mendi Elkartetik. Asmoa mendi bueltatxo bat egin ostean sagardotegira jaitsi eta bertan bapo bazkaltzea zen eta halaxe egin genuen. Altzotik gertu dagoen, Otxanbio mendia igo genuen. Mendia bera ez zen oso altua, 789 metro, baina bertatik, eta eguraldia ere primerakoa zelako aparteko ikusmira zegoen; parez pare, Txindoki eta Aralargo mendizerra ikus zitezkeen eta harantzago, Leitzako mendiak (eolikoak eta guzti), eta baita Izarraitz, Ernio eta Aizkorri.

Ondoren, herrira jaitsi eta Altzon turismo piskat egin genuen. Gipuzkoako herri txiki bezain dotore hau bisitatzeak pena merezi zuen. Gero, Amezketara joan ginen, Larreta sagardotegira, eta bertan, txoootx! eginaz sagardoa edan eta bapo

bazkaldu genuen. Aurten hogeita bi lagun elkartu ginen irteera honetan, iaz baino zerbait gutxiago, baina, joan ginenok aparteko giroa ipini genuen. Begira bestela argazkiok; mila hitzek baino gehiago adierazten dute. Eta sagardotegien denboraldia amaituta, datorren urtera itxarotea baino ez dugu.



Euskal Presoak EHratzeko plataforma Aretxabaletan

Euskal Presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataforma sortu berriaren aurkezpen publikoa izan zen apirilaren 20an Aretxabaletako Udaletxean.

Plataforma honen sorrerarako lehenengo urratsak iragan berri den apirilaren 16an eman ziren. Izan ere, aipatu egunean, Aretxabaletako EAJ, EA, EB, HB, AAK eta Senideak deituta, plataforma hau sortzeko bilera bat egin zen.

Bilera honetan herriko 33 talde ezberdinetako ordezkariak bildu ziren, AAB, Akordeoi Orkestra, Aretxabaletako Abesbatza, Lora-mendi, Arlutx Xake Taldea, Baietz Fundazioko Komitea, Jarrai, Ortzadar, Hiruatx eta Parrokiko Pastoral Elkarte beste batzuren artean.



Herriko 33 taldek osatzen dute plataforma eta prentsaurrean esandakoaren arabera, helburua Espainiak eta Frantziak presondegien gainean dagoen legedia betetzea da

Plataformaren helburua, herritarren sentsibilizazioa eta atxikimendua lortzea da, presio soziala egiteko asmoz. Azken batean, Espainiako eta Frantziako presondegietako legediak betetzea exigitu nahi dute plataformako kideek oinarritzeko lau puntutan: euskal presoek Euskal


Herrian egoteko eskubidea dutela; gaixotasun larriak jotako presoak askatu behar direla; zigorraren hiru laurdenak bete dituztenek baldintzapeko askatasunean egon behar dutela eta azkenik presondegietan presoek giza eskubideen errespetua bermatzea.

Udaberria eta uda euskara ikasteko urtaro oparoak

Euskara ikasi edota hobetu nahi duenak aukera oparoa du datozen hilabeteotan zehar. Izan ere, bai AEK, bai Udal Euskaltegiek bai HABEk hainbat aukera eskaintzen dituzte euskara den mundu zabalean murgiltzeko.

AEKri dagokionez, makina bat urte daramatza Euskal Herriko hainbat herritan uda barnetegiak antolatzen. Mailaren eta norbere gogo edo aukeraren arabera, bi, hiru edota lau asteko barneteiak daude. Barnetegi hauen prezioa 40 eta 60 mila pezeta artekoa da iraupenaren arabera. Informazioa nahi duenak AEKko edozein euskaltegira deitu baino ez du.

Udal Euskaltegien kasuan, eta iaz egin bezala, barnetegi bakarra dago



Giro politean euskara ikasteko aukera bat dira barnetegiak

maila guztietarako Zerainen berau. Interesa duen edonork Udal Euskaltegira deitu dezake informazio gehiago eskatzeko.

Horrez gain, bada udan euskara ikasteko beste era bat barnetegia

izan beharrik gabe: familia euskaldunetan egonaldiak. Familia hauek normalean baserri giroan bizi dira, eta euskara ikasteaz gain, baserriko giroa ere ezagutzen du eta nahi izatekotan nekazaritza apur bat ere bai.

kaixo Ze Barri?ko irakurle zareten guztioi.

Orain hiru hilabete aldizkariko hainbat berrikuntzaren berri eman genizuen, hala nola, orri gehiagokoa izatera pasatuko zela, 16 zehazkiago eta portada koloretan izango zela. ikusi ahal izan duzuen bezala, zuon eskuetara azken hilabeteotan heltzen den Ze Barri? 16 orrialdetako da eta portada koloretan du.

Ez da, baina lan makala izaten bere gauzatzea. Gainera, herrian sortzen eta egiten diren gauzetako batzuk ihes egiten digute. Hori dela eta, zuon guztion laguntza beharrezkoa zaigu.

Gure telefono zenbakia 943 71 54 34 da. Edozein iruzki-netara gaude irekita, eta ekitaldiren baten berri eman nahi izanez gero, argazki zahar erakarga-rririk edota zerbait esateko baduzue jo gugana. Ateak zabalik ditugu.

Horrez guztiaz gain, aurpegi berri bat ere badugu gure artean, Monika Belastegi liberatu berria.



Maiatzean zehar hainbat ekitaldi ditugu bai Eskoriatzan bai Eskoriatzatik kanpo ere.

Eskoriatzari dagokionez, **maiatzaren 3an Umeen Danborradaren** inguruan **bilera** izango da **Kultur Etxean arratsaldeko seietan**. Aurreko urteetan arazoak izan dira gaztetxoan danborrada antolatzeko orduan ume gutxik eman izan duelako izena. Arazo honi aurre egiteko asmoz egingo da bilera.

Horrez gain, **maiatzaren 5erako**, beste **bilera** dei bat luzatu du udalak. Bilera hau ere herritar guztie zuzenduta dago. bertan, **San Pedro jaietrako prestaketa lanak** hasiko dira. **Kultur Etxean izango da arratsaldeko seietan.**

Erakusketak ere izango

dira maiatzean zehar.

Maidar Herze gazteak, Hondurasen sei hilabete igaro ostean, bertako **argazkien erakusketa** bat antolatu du. Erakusketa hau **maiatzaren 2ian** irekiko da arratsaldeko **17:00etatik 20:00etara** bitartean. **Argazkiak Honduraseko Chortí hinigenei** ateratakoak dira eta horrez gain, bideo emanaldi bat ere izango da hauen historia kontatuz. Erakus-keta **maiatzaren 7, 8 eta 9an** errepikatuko da ordu berean. Bertan jasotzen den dirua Chortíei laguntzeko izango da.

Herriko berriez gain, urteroko zitak ere gero eta hurbilago ditugu udaberriarekin batera. **Maiatzaren 9an**, Euskara urratsez aintzina! lelopean **Herri Urrats** ospatuko da Senperen.

Neurosia, punkaren ondorioz Eskoriatzan sortutako gaitza

NEUROSIA

Bateria: Jon Gorosarri, 17 urte
Gitarra: Igor Larringan, 18 urte
Baxua: Harriet Arenaza, 18 urte
Abeslaria: Jon Beitia, 17 urte

Nola hasi zen talde honen historia?

Ez zen ezer berezirik gertatu, taldea besterik gabe hasi zen.

Noiz?

Gutxi gora behera orain dela bi urte.

Lokalik baduzue? Noiztik?

Bai, hasieratik. Lokala Luis Eceiza eskola azpian dago eta herriko beste talde batekin konpartitzen dugu, Epilepsia taldearekin hain zuzen. Esan beharra dago lokala, ibai ondoan egoteagatik, oso hezea dela, itukin eta guzti.

Egoera hau oso lotsagarria dela iruditzen zaigu, kontuan izanik, gainera, udaletxeko lokal batean gaudela, hau da udaletxearena dela. Ea noiz konpontzen diguten arazoa edota bestela hezetan hori kentzeko aparatu bat erosi dezatela.

Zuzenean jo al duzue noizbait?

Ez baina gure helburuetariko bat da epe motzera.

Zenbat abesti dituzue, ze estilotoakoak dira eta zer nolako letrak dituzue?

Bost abesti propio ditugu eta "Eskoriatza" eta "Cicatriz" taldeen bertsio batzuk ere baditugu. Gure estiloa orokorrean punki azkarra da eta letrak ere punki motakoak egiten ditugu.

Zenbat aldiz elkartzen zarete astean zehar?

Birritan 2 ordu bakoitzeko.

Zein talde gustatzen zaizue?

Eskoitzako Heriotza eta Eskoriatza taldeak, RIP, Eskorbuto, Cicatriz.. punk ingelesa eta Ramones.



Jon Gorosarri bateria eta Jon Beitia abeslaria taldeko bi kide entsaiatzera joateko prest. Gainontzekotaldekideek beste zeregin batzuk zituzten...

Badaukazue material propiorik zuzenean jotzeko?

Zerbait faltan dugu baina moldatzeko modurik badaukagu.

Harremanik baduzue bailarako beste talde batzuekin?

Bai, gainera animatu gaituzte kontzertuak egitera baina oraindik pixka bat falta zaigu.



Jon Beitia, erdian, ez da soilik nagikerian aritzen, dantza taldean ere aritu zen 97ko San Pedrotan kasu

Laurak mutilak zarete baina pentsatu al duzue noizbait nesarik sartzea?

Ez baina ona badago eta ondo abesten badu pentsatuko genuke.

Jotzeaz gain ikasi edo lan egiten al duzue?

Harriet lanean hasi da, kooperatiban bazkide bezala eta besteok ikasten gabilta; Igor Arrasateko EPPn eta beste biak Almenen.

Zer egiten duzue zuen aisialdian?

Lagunekin nagikerian ibili eta noizbehinka futbitoan jolastu.

Zer egingo zenukete alkatea izango bazinate, eta hauteskundeak datozela kontuan izanda?

Gaztetxe bat egingo genuke eta lokalak hobetu. Oraingo alkatea ordezkatu baina lehenengo lokalean dugun zulo bat estaltzera behartuko genuke: jotzeko materiala sartzea eta ateratzea oztopatzen baitigu.

Zer aldatuko zenukete "Ze Barri" aldizkaritik?

Alde batetik herrian egiten eta egiten ez diren gauzen kritika gehiago sartuko genuke eta bestetik esan beharra dugu aldizkaria ondo dagoela herriko berriak ezagutzen laguntzen duelako.

Eskoriatzan ere adimen urritasuna dutenen aldeko kanpaina

Aspalditik garai honetan egin ohi duen bezala, Atzegik, hasi berri du urteroko kanpaina. Kanpaina honen helburua, adimen urriko pertsonen alde egitea da, eta aurtengo leloa *"Ez dakizu zer sentitzen duan. Lastima! Sentitzen dut"* da. Jadanik kaleetan daude adimen urriko pertsonen berri ematen duten kartel eta irudiak. Gipuzkoa mailan lan egiten duen elkarte honek baditu 1.800dik gora familia bere baitan, 143 Deba garaian eta 8 hemen, Eskoriatzan.



Gipuzkoako Adimen Urriko pertsonen senitarteko eta lagunek osatutako Elkarteak du Atzegi. Bere helburua adimen urriko pertsona horien bizitza kalitatea eta eta beraien familiena bultzatzea da.

Zortzi dira Eskoriatzan Atzegiko partaide diren familiak, eta elkarrearen bidez arazoak elkarren artean konpontzen saiatzen dira,

Astean birritan, asteazken eta ostiraletan kirola egitera joaten dira frontoira

laguntza emanten diote elkarri eta elkarrekin gauzatzen dituzte irtenbide egokia eman beharreko programa eta proiektuak.

Era berean

baliogarria da baita ere, pertsona horiek bizi diren gizartean ezagu-tzera eman dezaten beraien burua, azken batean, hauek gizar-teratzea eta

Eskoriatzan 8 familia dira Atzegiko kide eta arazoak elkarren artean konpontzen saiatzen dira.

kontuan hartzea errazagoa izan dadin.

Zer sentitzen dut?

1.895 bazkide ditu Gipuzkoan zehar Atzegik. Geure bailarara hurbilduz, 144

bazkide ditu elkarrekin Deba Garaian eta Ara-maion: 8 Eskoriatzan arestian ai-patu bezala, 13 Aretxabaletan, 51 Arrasaten, 30 Bergaran, 7 Antzuo-lan, 1 Aramaion, 6 Elgetan, eta 28 Oñatin.



Atzegik eskaintzen dituen zerbitzuen artean kirola dago: gimnasia, igeriketa, aerobic-a, dantza, pilota eta abar praktikatzeko dute adimen urriko gizon-emakume hauek. Horrez gain, aisialdirako Txolarte klubak deritzen guneak ere badituzte. Hauen helburua, gizarte harremanak bultzatu eta aisialdiko jardueren bidez komunitatean partehartzeko laguntzea da.

Adimen urriko pertsonen senitarteko eta lagunek osatutako elkarte honek urtero egin izan ohi duen legez, kanpaina berri bati ekin eta bertan murgildurik egon dira amaitzear dagoen apiril honetan zehar.

Ez dakizu zer sentitzen duan, lastima! Sentitzen dut. Hauxe izan da aurtengo kanpainaren leloa, eta bere helburua adimen urriko pertsonen eta hauen familien bizitza kalitatea hobetu nahian, guztiok

Eskubiko irudian, aurtengo kanpainako kartela ikusi daiteke, eta baita leloa irakurri ere. Ezkerrekoan, joan den asteazkenean frontoian gimnasia egiten ari zirela.



beraiengana hurbilduz adimen urriko gizon-emakume hauek gizarteratzea da, eta era beran hurbiltze hori dela medio, pertsonak direla eta guk ditugun premia afektibo berak dituztela ohartaraztea ere bada.

Atzegik kanpaina hau aurrera eramateko, Gizartekintzaren eta

Kutxa Fundazioaren laguntza izan du. Horrez gain, eta kanpaina sustatzeko, hainbat ekitaldi ere antolatu dituzte, eta hauetan Kike Amunarriz, Jon Andueza, Txirri Mirri eta Txirribiton edota Gorka Zufiaurreren laguntza izan du.

Adimen urriko pertsonen

aldeko elkarte honek hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie bertako bazkideei: guraso berriei laguntzeko programa, eskualdeko lane-tarako programa, aisialdi eta gizarte partaidetzarako zerbitzuak... Eta horien guztien artean, kirol programa ere badago, seikote eskoriatzar honen argazkiek argi adierazten duen bezala.



Kaixo:

Hitz hauetan nire anai maiteena aurkeztu nahi dizuet eta era berean adimen urriko pertsonen bizimodua, izaera eta sentimenduetara gerturatzeko aukera bat eskaini.

Jon nire anai gazteena da, bost anai-arrebatatik txikiena. Nahiz eta 31 urte izan betik izango da gure etxeko txikiena, kuttunena eta maitatuena.

Kotxezale amorratua, karrerek eta raliak erakartsun berezia dute beretzat; merkatuan dauden kotxe marka guztiak ezagutu eta bereizten ditu (batzuk ateratzen duten hotsagatik ere). Bere eskuetan edo poltsikoan betik du kotxe txikiren bat indarra eta segurtasuna ematen diona.

Musika eta lorak ikaragarri gustatzen zaizkio, etxeko toki guztiak lorontziz betetzen ditu, batez ere urte sasoi honetan.

Gustoko ditu itsasontziak (ibili, ikustea...), marraztea eta bere kolekzio luzeko kotxeekin mekaniko lanak egitea.

Astean zehar Bergarako Gureak tailerrean lan egiten du eta inoiz astelehenak maldan gora egiten zaizkio. Lagile fina omen da, honen ziurtasun guztia du,

eguneroko bizitzan eskuartean daukana ondo eta bukatu arte ez duelako uzten. Oso, oso ordenatua da.

Guztiok bezala gaixoaldiak, haserrealdiak, goibeltasunak, amorratioak pasatzen ditu, batez ere gauzak nahi dituen bezala ez zaizkionean irretzen edo zerbait ulertu ezin duenean, hala ere, goxotsaun eta maitasunarekin lagundu ezkerro erraz gainditzen ditu.

Bestalde momentu askotan adierazten dituen poztasuna, ilusioa, maitasuna, eta esker ona dira gure etxeko bihotzak betetzen eta batzen dituen. Gustora jarraituko nuke Joni buruz idazten. Azken aipamen bezala eta irakasle ikuspuntutik, goraiatu nahi nuke adimen urriko haur eta gazteen Hezkuntza sistema reglatuan integrazioarekin, hauen gizarteratzean eman den aurrera pausua.

Nahiz eta, azken hamar-hamabost urteetan asko aurreratu, gazte, heldu eta nagusien gizarteratze osoa alortzeko lan asko dagoen egiteko. Lan honek denon laguntza behar du.

Rosa Elizburu

Jose Arana Almen Ikastolako andereñoa

Maidier Herze, Hondurarrei irakasten eta hondurarrengandik ikasten

Maidier Herze sei hilabetez egon da Hondurasen, Copan Ruinas herritik hurbil dagoen komunitate indigena batean. Magisteritza ikasketak bukatu, eta iraskale gisa izan duen lehenengo esperientzia Hondurasen bizi izan du, aipatu komunitatean nagusien alfabetatzean. Mich hurakanak ere bertan harapatu zuen, nahiz eta bera zegoen gunean kalte larririk ez sortu. orain hemen dagoen arren, Hondurasen horren gozo hartu duen jende artera itzultzeko gogo bizia duela aitortu digu.



Maidier ikasle batzuekin eskola egun batean.

Aspaldidanik zuen Maidier Herzek Hego Amerikara joateko gogoia, eta patuak haranzko bidean jarri zuen orain dela sei hilabete. Izan ere, Magisteritzako azken urtea burutzen ari zela, klaserako lan bat egiteko aldizkari bat erosi eta bertan, Hondurasera laguntza eskaintzera joateko jendea behar zela irakurri zuen.

Lanerako luzapen hau, Bilboko elkarte txiki batek egiten zuen. Honela, elkarte honetako kideekin harremanetan jarri eta pasa den urrian Magisteritzako ikasketak amaitu ostean Honduraserako

hegazkina hartu zuen Maidierrek beste bi lagunekin batera, Larraitz Uribesalgorekin eta Ergiña Urze-lairekin, eskoriatzarra lehenengoa eta atxabaltarra bigarrena.

Urriaren 15ean aireratu zen Maidier eta bere bi lagunak Hondurasera eramango zituen hegazkina, eta bertaratzean egin beharrekoa oso argi zeraman Maidierrek: Magisteritza ikasirik, hau da irakasle izanik, komunitate batean nagusien alfabetatzean aritu, hori baitzen Bil-

boko elkarteak proposatutakoa.


Honekin guztiarekin, Copan Ruinas izeneko herriara heldu, eta honen inguruan dauden 19 komunitateetako batera joan zen bertaraino eramane zuen beharrera.

Bien bitartean, eta Maidierrek esandakoaren arabera, Copan Ruinasera iritsi ziren egunean greban zeuden bertako biztanleak. Izan ere, *"indigenak bizi diren lurren jabe izan beharko lirateke, baina gobernuak inongo azalpenik gabe lurjabe handiei saldu zizkien lur hauek. Ondorioz, indigenek lur hauek landu eta bertan bizitzeagatik alokairu bat ordaindu behar izaten diete lurjabe handi horiei"*.

Honi aurre egiteko, orain bizpahiru urte, indigenek Comich izeneko taldea sortu zuten, *"beraiek La Organización deitzen diote. Comichean, 19 komunitate horietako bakoitzeko aholkulari nagusia dago ordezkari gisa"*.

Komunitate hauek guztiak Chorti etniakoak dira eta Hondurasen orotara zortzi daude eta etnia bakoitzak bere presidentea dauka. *"Eta hauek etniaren ordezkari lanak egiten dituzte Tegucigalpan etnien arteko bilerak egiten dituztenean"*.

Maidier eta bere bi lagunek, hala ere, soilik organizatuta, hau da,



Umeak txikitatik hasten dira etxeko zereginetan laguntzen. Argazki honetan, Marcos eta Edith anai-arrebak etxeko arropak garbitzen ari dira.



Gizon eta emakumeek dituzten zereginak oso ezberdinak dira. Emakumezkoak seme-alabez eta etxeko lanetaz arduratzen diren bitartean, gizonak etxera jatekoa eramateaz. Ezkerreko irudian, emakume gazte bat sukalderako egur bila joan ostean. Ezkerrekoan herriko umegina "partera", umeak mundura ekartzen laguntzen duena.



organizazio barruan dauden indigenekin egin dute lan, bere esanetan hauek baitira aurrera egin eta beraien egoera hobetzeko interes handiena dutenak. "Organizaziotik kanpo daudenekin ez gara aritu. Azken hauek organizazio barruan ez egoteko arrazoia beldurra da, lur jabe handiei dieten beldurra, etxerik gabe gelditzeko arriskua baitute. Beldur hori, gainera, Organizazioan dauden kide batzuek jasandako mehatxuek areagotu egiten dute, eta apirilean bete dira bi urte liderra hil zutena, hau da, lur jabeen zapalkuntzari aurre egiteko Comich-a sortu zuen gizona hil zutena".

Honela, eta arestian kontatutako arrazoiak direla medio, Maider, Larraitz eta Ergiña Copan Ruinasera iritsi ziren egunean, bertan dauden aztarna Mayak hartuak zituzten chortis-ek. Izan ere, oso gune turistikoa da hau, eta diru sarrera nahiko polita gobernuarentzat, aztarnetan sartzeko sarrera garestia baita. Honela, "aztarnategiko sarrera turistei ixtea presiobide moduan erabili nahi izan zuten indigenek gobernuak jaramon egin ziezairen beraien lur eskaeretan".

Astelehen batean igo zen maider berari zegokion komunitatea. Ez zen baina, egun honetan irakasle

lanetan hasi. "Heldu nintzanean beraien oporretan zeuden, eta hori aprobetxatuz harremanak egiten hasi nintzen. Lehen kontaktua umeekin izan zen, beraien baitira kuriosoenak. Komunitatea erakutsi zidaten eta etxerik etxe familiak aurkeztu, eta nik bide batez, eskoletarako gonbitea egiten nien. Eskolak, arratsaldean ematen nituen, ordubietatik sei etara, eta goiza beste zeregin batzuetan ematen nuen. Honela, astea komunitatean igarotzen nuen eta asteburuetan Copan Ruinasera jaisten nintzen beste bi kideak bezala". Horrez guztiaz gain, etxeak ja-

sotzen ere aritu da Maider. Izan ere, bera joan den Bilboko taldearen beste helburu bat, indigenei etxeak eraikitzea da. Eta Maider etxegintzan ere buru berrari sartu eta klase ematearekin tartekatatu zuen. Honekin guztiarekin, bidaia ahaztezina dela gaineratu du, eta orain gutxi etorri bada ere, berriz noiz joateko aukera izango ote duen pentsatzen ari da dagoeneko, batik bat "bertako biztanleek duten izaera gozo eta apartagatik, dutenarekin konformatu eta alai bizi baitira, geroan pentsatu gabe, beti laguntzeko prestu, duten apurra banatuz, ordainetan ezer eskatu gabe".



Arnaldo harotza eta Don Jesus, Maider egon zen komunitateko aholkulari nagusia.

**Zer deritzozu Kosovon gertatzen ari denari?
Zuzentasunez jokatzeko ari al da bertan?**



Amaia Aranburu
(Ikasle eta langilea)

Izugarria iruditzen zait gauden garaian horrelako zerbait gertatzea. Gainera, heltzen zaigun informazioa ez da guztiz fidagarria, izan ere, bakoitzak informazioa bere erara ematen du.




Esther Uribetxebarria
(Langilea)

Pasada bat iruditzen zait herrialde hori NATOrekin hainbat gauzatan bat ez etortzeagatik azken honek bonbardatzea. Kaltetuenak gainera herritarrak izaten dira. Zergatik ez zaizkie ardurak behar direnei eskatzen?



Maje Umerez
(Langilea)

Konponbide guztiak zailak dira, baina gerra bat azken muturreko zerbait iruditzen zait. Ez dakidana da konponbidea zein den.




Jose Ignacio Isasmendi
(Langilea)

NATOk tropek oso ondo ari dira, serbiarrak izugarrikeri bat egiten ari baitira beraiek garbitasun etnikoa deitzen duten horrekin.



Roberto Kortazar
(Langilea)

Kristoren astakeria egiten ari direla uste dut eta euskaldunok erraz ulertzeko moduko egoera da gainera.



Juan Cruz Larrañaga
(Langilea)

Oso gaizki ikusten dut gertatzen ari dena bai Milosevicen aldetik, nahi duena egiten ari delako, eta bita NATOren aldetik ere, partehartze interesatua delako.



Gerrak jadanik telebistan ikusi ahal ditugu etxeko besaulkian lasai-lasai jarrita, filmeak bailiran. Lehen Balkanak deitzen genuena gero eta ezagunago egiten zaigu eta jadanik badakigu bereizten Serbia, Mazedonia, Albania, Bosnia-Herzegovina... eta azkenik Kosovo. Herrialde hau ere aski ezaguna egin zaigu gerra bat dela medio. Hori dela eta eskoriatzarrok zer pentsatzen dugun jakin nahi izan dugu eta kalean honako iritzi hauek jaso ditugu.

Tradizioari jarraiki egun osoko jaia Aitzorrotzen

Datorren igandean Aitzorrotz Eguna ospatuko da. Azken urteotan bertara igo eta goiz alai bertan igarotzeko aukera ematen zuen jai honek, aldaketa nabarmen bat izango du aurtengoan. Izan ere, antzinako ohitura eta tradizioa berreskuratu nahian, Jose Arana Almen Ikastola, Atxorrotx GKE, Apotzagako Bertsolari Taldea eta Udala elkartu, eta Aitzorrotzeko jaia egun osokoa izatera buelta dadin makina bat lan egin dute

Azken urteotan Aitzorrotzera igo eta goiza bertan igarotzen genuen eskoriatzar askok Aitzorrotz Egunean. Bazkaltzeko etxera bueltatu edota jaia kalean bertan jarraitzen genuen. Aurtengo Aitzorrotz Eguna, hala ere, ez berdin ageri zaigu, mendia ez bakarrik goiza, bazkaria eta arrtsalde parte bertan igarotzeko hainbat ekitaldi antolatu baitituzte Jose Arana Almen Ikastolak, Atxorrotx gobernuz kanpoko erakundeak, Apotzagako Bertsolari Taldeak eta Udalak elkarlanean.

Egun osoko jaia izate honek xede zehatza du: antzinako tradizioa berreskuratzea. Izan ere, lehenago egun osoko ospakizuna izaten zen honako hau, eta talde antolatzaileei



Tradizioa berreskuratu nahian, Aitzorrotz Eguna egun osoko jaia izatea nahi da

usadioa berreskuratzea ideia aproposa iruditu zaie.

Hau guztia gauzatzeko, herritarren laguntza beharrezkoa da, eta guztioi Aitzorrotzera joan eta antolatutako ekitaldietan partehartzeko gonbitea luzatzen digute. Ekitaldiak goizean goizetik hasiko dira. Goizeko 8:30ean, txistulariek diana joko dute eta 9:30ean Aitzorrotzera igoera izango da. Bertara heldu eta 11:30ean meza izango da. Ostean, txistulariak, trikitilariak eta Etxabe anaiak bertsolariek saioa eskainiko dute giroa alaitzeko.

Bazkaltzeko ordua helduta, sei bildots erreko dira burduntzian, eta hauetatik jan nahi duenak pronto

ibili beharko da, 60 trartel baino ez baitira egongo. Eta besteren ezean, tabernatxoa zabalik egongo Aitzorrotzen eta salda eta bokadiloak eskuragai, eta batutako dirua herriko atzeratuei eta Atxorrotx GKEri emango zaio.

Arratsalde partean, 17:00etan, jaitsiera izango da eta behin herriko plazara helduta, bertsolari eta trikitilarien saioa egongo da, eta ekitaldiekin amaitzeko, 18:30ean tortila jasotzea eta salmenta plazan.

UDALETXEKO OHARRA

Beste urteetan bezala, Eskoriatzako Udalak herriko umeendako "udaleku irekiak" antolatuko ditu uztailean. Udaleku ireki hauetan zuzendari eta begirale izateko epea luzatu egin da. Beraz, interesatuek "Curriculum vitae" aurkeztu dezakezue Eskoriatzako Kultur Etxean edota Udaletxean.

Baldintzak: 16 urte beteta izatea eta euskara ahoz zein idatziz menperatzea.

Kontuan hartuko da: adina, begirale titulua izatea, ikasketak, esperientzia, gaiarekin zerikusia duten ikastaroak eta bisitokia.



60 bildots erreko dira burduntzian bazkaritarako

BEHARREZKO

TELEFONOAK

Eskoriatza

- Udaletxea 943-714407
- Udal Bulegoak 943-714532
- Udaltzaingoa 943-714407
- Euskaltegia 943-792168
- Kultur-Etxea 943-714688
- Gizarte-Laguntzailea 943-714688
- Kiroletxea 943-715328
- Liburutegia 943-714688
- Luis Eceiza 943-714938
- Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
- Almen 943-714964
- Museo-Eskola 943-714688
- Ze Barri? 943-715434**
- Talde Antimilitarista 943-715028
- Irakasle Eskola 943-714157
- Osakidetza 943-714452
- Telesko 943-714917
- Taxia 943-714059

Bestelakoak

- Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
- Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
- Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
- Renfe (Zumarraga) 943-721515
- Renfe (Gasteiz) (945) 232030
- Pesa (Arrasate) 902 101 210
- Larrialdiak (Arrasate) 771043
- SOS Deiak 112

JAIOTZAK

- Martxoren 29an Maite Carriet Nuñez
- Apirilaren 13an Mainer Zabala Candelario

LIBURU GOMENDIOA

Tentazioak
(Jasone Osoro)

Sexua, berekoikeria, plazerra, inbidia,... eta *tentazioak*. Munduan bizitza sortu zen instant beretik jaiotako ideia zaharrenetarik bat errepresentatzen duen berba dugu tentazioa, baina gaur egun arte, inoiz ez da hitz hontaz zabal eta lotsarik gabe mintzatu. Are gutxiago, tentazio mota ezberdinez, dakartzaten ondorioez edota zerk eragiten duten, nola

BEKAK

- Aldikako praktikak Guggenheim Bilbao Museoan, unibertsitari karrerako azken bi urtetan matrikulatuta dauden ikasleei zuzenduta, **bisitariari harrera, argitalpen, errejistro, hezkuntza, esposizio zerbitzua eta komunikazio arloetarako.**

Epea: maiatzak 7.

- "Turismo de España" programaren barruan, atzerrian hostalaritza eta restaurazio espezializazioa burutzeko **bekak**, diplomatu edo lizentziatu profesionalentzat.

Epea: maiatzak 7.

- **Musika, dantza, antzerkia eta zaharberrikuntza** arloetan espezializazio lanak burutzeko **bekak**:

Epea: maiatzak 14.

- **Arte plastiko, ikus-entzunezko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa** arloetako arte sorkuntza eta promozioa bultzatzeko **laguntzak.**

Epea: maiatzak 14.

LAN ESKAINTZAK

- **Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak** hainbat postu bete nahi du: **terapeutak, dietetikako teknikariak,...**

Epea: maiatzak 7.

- **Antzularako, kultura, euskara, kirola, gazteria eta hezkuntzarako arduraduna eta laguntzailea** behar dira.

Epea: maiatzak 10.

- **Bizkaiarako psikologoa eta soziologoa** behar dira.

Epea: maiatzak 10.

- **Nafarroako Komunitaterako turismo jardueretarako ofiziala** behar da.

Epea: maiatzak 12.

uko egin (beharbada soilik nola uko egiten ahalegindu), eta abar.

Jasone Osorok aspektu guzti hauek pote berean sartu, ausardiaz eragin eta nahasketatik, *tentazioak* izeneko liburu paregabeko hau laboratu du.

Batetik bizgarri eta hunkigarriak diren gaien sinpletasunak eta bestetik gai horiek jorratuak izan diren onestasunak, *tentazioak* idazti ezinbestekoa bihurtzen dute.

Motibazio gehiago? Sentsazio bizkarria liburu osoan zehar. Gaiak? Sexua, berekoikeria, inbidia, ... eta *tentazioak*.

UDALEKUAK

- 14-17 urte arteko neska-mutilen programan izen emateko epea: **maiatzaren 10etik 20ra Arrasateko Gazte Bulegoan.**

UDAKO IKASTAROAK

- EHU-UPVk urteroko udako ikastaro eta Europako ikastaroei buruzko **informazioa** kaleratu du.

Matrikula epea, maiatzaren 3tik aurrera, plazak bete arte.

LEHIAKETAK

- **Arrasateko San Juan Jaiak 1999 kartel lehiaketa.** Arrasatearrei zuzenduta, teknika librean eta 50*70 zmko neurrian aurkeztu beharko dira lanak.

Epea: maiatzak 21.

- **Zumarraga-Urretxuko Udalek, urteroko lehiaketak antolatu dituzte:**

- **Narratiba eta Poesiako Iparragirre Saria.** Lanak euskaraz, gai librean, inoiz argitaratu eta saritu gabeak izan behar dute.

Epea: ekainak 18.

- **Pintura lehiaketa:** lanaren gaia eta egiteko modua librea, 130*97zmko neurrian.

Epea: irailak 10.


- **Komiki lehiaketa:** gai librean, euskaraz nahiz gazteleraz, 2-4 orrialdeko luzeraz eta DIN A-3 neurrian.

Epea: irailak 10.

- **Bertso paper lehiaketa:** gai librean eta euskaraz idatziak, 6-8 bertsoetako lanak.

Epea: irailak 10.

- **Argazki lehiaketa.** Lanak, zuri beltzean eta koloretan, gai eta teknika librean. **Epea: irailak 10.**





Orain berrogei urteko argazki bateki gatozkiozue oraingoan. Argazkia zergatik atera zuten ez dakizu zehazki, baina zerbait garrantzitsua izango zelako ustea dugu, izan ere, oso dotore eta txintxo ageri baita zazpiko kuadrila hau.

Ezkerretik eskumara eta goitik behera:

Javier Armendariz, Edorta Alegria eta Eugenio Beloki.

Felix Errekaldakue, Iregi "Tanborrero" eta Anton Beloki.

Juanito Azkarate.

ZURE PUBLIZITATEA ZE BARRI?N EGITEKO GUREKIN HARREMANETAN JARTZEA BESTERIK EZ DUZU

AURTENGO MODULUEN TARIFAK (1999)

ZURI-BELTZEAN		KOLORETAN	
Orrialde osoa	25.000 pta.	Kontraportada	40.000 pta.
Orrialde erdi	15.000 pta.	Orrialde osoa	30.000 pta.
8 modulo	12.000 pta.	Orrialde erdi	17.500 pta.
6 modulo	9.000 pta.		
4 modulo	6.000 pta.		
2 modulo	3.000 pta.		
Modulo bat	1.500 pta		

Aldizkariaren ezaugarriak

Aldizkotasuna:	Hilabetekaria
Tirada:	2.000 ale
Formatoa:	DIN A 4
Moduloaren neurria:	4 x 4
Banaketa:	Dohainik banatzen da Eskoriatzako etxe guztietan Auzoetan eta Gatzagan

Modulo 1
4 x 4 zm.

Ze barri?